

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

152/2019 Foru Agindua, apirilaren 11koa, zeinaren bidez, interes publikoa aitortzen baitzaio Erriberagoitiko udalerriko Tuyo herrian, 2 poligonoko 879 lurzatian, Tuyoko Ureztatzaileen Elkartean, zundaketa egin eta eremu fotovoltaikoa jartzeko proiektuari

Tuyoko Ureztatzaileen Elkartek Erriberagoitiko Udalari obra baimena eskatu dio urak Zadorra ibaitik hartu ordez lurrazpitik hartu eta egungo erregulazio putzura eramateko zundaketa egiteko, eta baita hori eguzki energia bidezko punpaketa sistema baten bidez egin ahal izateko eremu fotovoltaiko bat jartzeko ere, Tuyo herriko 2 poligonoko 879 lurzatian.

Erriberagoitiko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren aitortpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago onetsitako proiektu teknikoa, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita lurzatia lurzoru urbanizaezinean dagoela, Z5 zonan (trantsizioko landa paisaia), udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, eta eremu horretan baimenduta dago komunitatearen ekipamendurako eraikuntzak eta instalazioak jartzea, baldin eta horietan egiten diren jarduera bereziak direla-eta landa ingurunean jarri behar badira.

ONINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak betiere dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Apirilaren 24ko 103/2019 Foru Aginduaren bitartez, hasierako onespina eman zitzaion interes publikoa aitortzeko espedienteari eta jendaurrean jarri zen 20 egunez, ALHAOn argitaratu zenetik hasita. ALHAOn 2019ko maiatzaren 8an argitaratu zen (53. zenbakia). Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 2.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Artikulu horretan ezartzen denez, "energia elektriko hornitzea interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da".

Aurkeztutako proiektuak berekin dakarren instalazio motari dagokionez, kontuan hartu beharra dago 2011-2020 aldirako Energia Berriztagarrien Plan Orokorra (EBP). Ministroen Kontseiluaren 2011ko azaroaren 11ko Erabakiaren bidez onartu zen plan hori, eta helburu jakin batzuk finkatzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 23ko 2009/28/EE Zuzentaraua betetzeko (iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzen du zuzentarauak). Horrez gain, aipatu den plana bat dator Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 661/2011 Errege Dekretuak agindutakoarekin.

Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak honako helburu hauek finkatzen ditu, besteak beste, 5. artikuluan:

“a) Energiaren erabileran efizientzia bultzatzea eta energia aurrezpena sustatzea, Europar Batasunak gai horren inguruan ezarritako arau eta jarduketan esparruan.

b) Energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko. (...)

f) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen, jarduera ekonomikoen eta bizitegi sektorearen energia faktura jaistea. (...)”

Instalazioa landa ingurunean kokatzeko beharrari dagokionez, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da lur horietan; izan ere, lurraren nekazaritza erabilerei lotutako instalazioa da.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa aitortzea Tuyo Ureztatzaileen Elkartek sustatutako eta Erriberagoitiko Udalak izapidetutako proiektuari, zeinaren xedea baita zundaketa egin eta eremu fotovoltaikoa jartzea eguzki energia bidezko punpaketa sistema jartzeko, Tuyo herrian, 2 poligonoko 879 lurzatian. Hori guztia, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago aginduzko udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen eabazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 11

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO